



**AKTA, SAIL SUSTATZAILEAREN ETA TOKIKO GOBERNUEN BATZORDEKO
ORDEZKARITZAREN ARTEKO ALDEBIKO BATZORDEAK 2022-10-18AN EGINDAKO
BILERARENA**

Bildutakoak:	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Alfonso Gurpegui. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarteratzeko sailburuordea (batzordeburua) ▪ Francisco Pedraza. Enplegu eta Gizarteratzeko zuzendaria ▪ Arantza González. Lan eta Enplegu Saileko aholkularia ▪ Ángela Eguía. Gordexolako alkatea ▪ Iñigo Gaztelu. Larrabetzuko alkatea ▪ Yolanda Díez. Bilboko Udaleko zinegotzia ▪ Jon Velasco. Letradua ▪ Iñigo Urrestarazu. Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzako aholkulari juridikoa (jarduneko idazkaria)
Tokia:	BILERA TEAMS BIDEZ
Eguna:	2022-10-18, asteartea
Ordua:	9:00
Gai-zerrenda:	1. Tokiko Gobernuen Batzordeak Enpleguaren Euskal Legearen aurreproiektuari buruz egindako txostenaren balorazioa

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 90. artikulua Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen funtzionamendua arautzen du alerta goiztiarren organo gisa jarduten duenean, eta, hala, honako hau ezartzen du 1. puntuan: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra udal-eskumen propioei soilik eragiten dien lege edo legegintzako dekretu baten aurreproiektuari ekitea erabakitzen duenean, Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak nahitaezko txostena egin beharko du, adierazteko ea arau horrek toki-autonomiari larma edo urraketarik eragiten dion. Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzak, aztertzen ari garen lege-ekimena sustatu duen organo gisa, aipatu txostena eskatu zion Tokiko Gobernuen Batzordeari. Hala, espedientera erantsi zen, 2022ko urriaren 4an.

Aipatu artikulua 3. puntuaren arabera, aldebiako batzordea deitu beharko da arau-proposamena sustatu duen administrazioaren eta Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeko hiru kideko ordezkariaren artean, baldin eta Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak igorritako proposamen guztiak edo batzuk onartzen ez badira.

2022ko urriaren 18an, bilera egin du Enpleguaren Euskal Legearen aurreproiektua izapidetzeko eraturako aldebiako batzordeak.

Aldebiako Batzordeko buru eta Enplegu eta Gizarteratzeko sailburuorde den Alfonso Gurpegui eman dio hasiera Batzordeari. Lehenik eta behin, partaideak aurkeztu ditu eta, ondoren, Batzordearen xedea azaldu du, hau da, Enpleguaren Euskal Legearen aurreproiektuaren gainean Tokiko Gobernuen Batzordeak aurkeztu duen txostena baloratzea. Tokiko Gobernuen Batzordearen ordezkariak hartu du hitza, ezer baino lehen bere posizioa azaltzeko.



Jon Velasco izan da posizio hori azaltzeko arduraduna, Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena idatzi duen letradua denez gero. Hasteko, enplegu-planen gaineko lau oztopo nabarmendu ditu. Lehenik eta behin, udal-eskumenak enplegu-planetan oinarrituta egotea gustatuko litzaieke, banaketa bertikaleko koefizienteetan daukaten eragina soilik enplegu-planengatik izan dadin, eta ez tokiko garapenagatik. Bigarrenik, udalerrien berezko eskumenak planteatzen dituen arautestu batean enplegu-planen araudia tasatuegia dela uste du eta, beraz, udalerriei ez diela uzten politika propio eta bereziak egiten, nahiz eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeak eskumen hori tokiko autonomiarena dela dioen. Hirugarrenik, legearen aurreproiektuan 10.000 biztanletik gorako eta beheko udalerriei ematen zaien tratu desberdina aipatu du. Eta, laugarrenik, Ekarpunen 4/2021 Legeari ematen zaion aplikazioari buruz mintzatu da, udalerriei eskumen propioak aitortzeak eragina izango duelako lege horren banaketa bertikaleko koefizienteetan. Enpleguaren Euskal Legearen aurreproiektuak aldi baterako araubidea ezartzen du. Auzia da aldi baterako araubidea gehiago izan beharko litzatekeela behin betiko araubidearen antzekoa, aldi baterakoan Gobernua delako dirua nola banatu erabakitzen duena eta behin betikoan, aldiz, Finantzen Euskal Kontseilua, udalerrien partaidetzarekin.

Oztopoen bigarren multzoa Enpleguaren Euskal Sarearekin lotuta dago. Lehenik eta behin, udalerrien eskumenak arautzean ez da ezartzen zein motatakoak izango diren; aldiz, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean hiru motatakoak izango direla aipatzen da: propioak, eskuordetuak edo transferituak. Horrek udalerriek Enpleguaren Euskal Sarean duten rola gehiago argituko lukeela uste dute. Bigarrenik, kontraesankorra iruditzen zaie aurreproiektuak *ex-lege* ezartzea udalerriek Enpleguaren Euskal Sareko kide izan behar direla eta, aldi berean, Enpleguaren Euskal Sareko berezko zerbitzuak ematea borondatezkoa dela esatea. Hurrengo oztopoak erakundearen leialtasunarekin dauka zerikusia, Eusko Jaurlaritzako funtzionarioei ematen zaien ikuskapen-ahala gehiegizkotzat jotzen baita. Azken oztopoa finantza-arloan kokatzen da. Izan ere, aurreproiektuan Enpleguaren Euskal Sarea osatzen duten udalerrientzako finantzaketa aurreikusten da, hitzarmenen bidez, lau urterako (beste lau urtez luzatu liteke). Beraiek egonkortasun handiagoa eskaintzen duen sistema bat nahiko lukete.

Ondoren, guztiz formala den oztopo bat aipatu dute: ez dago, bere horretan, finantzaketaren eranskinik, baina gaia memoria ekonomikoan jasotzen da; ondorioz, materialki betetzat jotzen da baldintza hori.

Jon Velascoren esku-hartzearen ostean, Alfonso Gurpeguik hitz egin du. Eskerrak eman ditu aurreko esku-hartzeagatik, eta Enpleguaren Euskal Legearen aurreproiektua egiteko orduan tokiko eremuarekin izandako sentikortasuna nabarmendu du. Halaber, adierazi duenez, Tokiko Gobernuen Batzordearen txostenaren ondorioz 5 aldaketa egin dira legearen 7 artikulutan. Arantza Gonzálezek eman dio hitza, Lan eta Enplegu Saileko aholkularia denez gero, Sailaren posizioa azal dezan.

Arantza Gonzálezek azaldu duenez, Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 90. artikuluan ezarritako edukira mugatu behar da, beste balorazio batzuetan hedatu gabe. Gaineratu duenez, Tokiko Gobernuaren Batzordeak banaketa bertikalaren koefizientei buruz azaldu duen oztopoa prebentziozkoa baino ez da, eta ekarpunen etorkizuneko legeari egotzi ahalko zaio aurreproiektu honi baino gehiago. Enplegu-politiken sektore anitzeko izaera nabarmendu du, tokiko garapenarekin, garapen ekonomikoarekin eta garapen sozialarekin lotuta baitaude. Aurreproiektuaren 77. artikulua

gehiegizko zehaztasunen gaineko oztopoari lotuta, kontuan hartu dutela eta artikulua garbitu dela azaldu du Arantzak. Hala, gutxieneko komun onargarria utzi da.

10.000 biztanletik gorako eta beherako udalerrien arteko bereizketari dagokionez, Arantza Gonzálezek horren arrazoia azaldu du: eskumen horiei ezin zaienez uko egin, bereizketa hori egingo ez balitz udalerrri guztiek, baita tokiko enplegu eta garapeneko planak egiteko baliabide aski ez dutenek ere, plan horiek egin beharko lituzkete, bereizketarik gabe. Edonola ere, baieztatu duenez, bereizketa ez dago pentsatuta 3.000 biztanleko udalerrri batek ez dezan bere enplegu-plan propioa egin, halakorik egin nahi badu. Hau da, plana egitea nahitaezkoa da batzuentzat eta hautazkoa beste batzuentzat. 10.000 biztanleko muga hori ezarrita, EAEko biztanleriaren % 75era iristen da, landunen % 74ra, erregistratutako langabezia osoaren % 78ra, eta jarduera ekonomikoa duten establezimenduen % 75 baino gehiagora. Hartara, nabarmen hobetzen da Autonomia Erkidegoko politika publikoaren diseinua.

Bigarren xedapen iragankorraren gainean lehen adierazitako oztopoa dela eta, Arantza Gonzálezek dio ulertzen dela oztopoa, baina Enpleguaren Euskal Legearen aurreproiektuaren ekintza-eremutik kanpo geratzen dela eta zerikusi gehiago daukala politika legegilearekin. Izan ere, maila instituzional desberdinen artean eskumenak banatzean, sarritan horien artean dauden gatazkak azaleratzen dira. Sailak ez du uste bigarren xedapen iragankorrak tokiko autonomia hutsaltzen duenik, inondik inora, ikuspegi hirukoitzetik (antolaketaren autonomia, eskumeneren autonomia eta finantza-arloko autonomia), finantza-nahikotasuneko eta baldintzarik gabeko parametroetatik diseinatuta baitago. Halaber, adierazi duenez, ekarpenen legeak ez du aurreikusten zelan egingo den finantza-banaketa *ex-novo* sortutako udal-eskumenetan. Ondorioz, Sailak Enpleguaren Euskal Legearen aurreproiektua egiteko orduan bermatu behar du udalerriek baldintzarik gabeko finantzaketa nahikoa dutela eskumen propioak garatzeko.

Enpleguaren Euskal Sarearen esparruan eskumen-motak bereiztea falta dela adierazten da txostenean. Horri jarraikiz, Arantza Gonzálezek dio, legegile gisa, eta sektore-eremu jakin baten araudia antolatzeke duen eskumena betez, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 16. artikulua ziozko klausula unibertsala erabili dutela, zeinak aukera ematen baitie udalerriei eta tokiko erakundeei interesgarriak diren eta herritarrei onurak ekartzen dizkien zerbitzuak emateko. 14. artikulua bi baldintza jasotzen ditu: bikoiztasunik eza eta iraunkortasuna. Baldintza horiek bete egin direla uste da, bai eta horren gainean konstituzioan ageri den doktrina ere. Enpleguaren Euskal Sarearen mapa subsidiarotasun, osagarritasun eta bikoiztasunik ezeko printzipioen inguruan antolatzen da.

Tokiko Gobernuen Batzordeak alegatu zuenez, udalerriek zerbitzuak borondatez emateak kontraesana dakar. Bada, gai hori ez dago Enpleguaren Euskal Sarean nahitaezko gisa diseinatuta, beti da boluntarioa, integrazio-prozesu bat dago eta udalerrri bat Enpleguaren Euskal Sarean sartuta dagoela ulertzen da, baldin eta zorroko zerbitzuak ematen baditu. Enpleguaren Euskal Sareak ez dauka nortasun juridikorik; erakunde kolaboratzailea da, zerbitzuak ematen dituzten agente guztiek osatua. Udalerriak lehen aipatutako klausula unibertsala aldarrikatu behar du, eta bide horretatik hasten da integrazio-prozedura. Era berean, aurreproiektuaren 19. artikulua garbitu egin da, tokiko autonomiaren printzipioa ahalik eta zorrotzen betetzeko.

Erakundearen leialtasunari buruz planteatutako oztopoa dela eta, Sailak ez du uste ikuskapen-sistema bat antolatze hutsak erakundearen leialtasuna zalantzan jartzen duenik, kontuan

hartuta arau-proiektu honen eremua tokikoaz gaindi doala, udalerriek duten zeregin garrantzitsua gorabehera. Edonola ere, ondorioztatu denez, funtzionarioen sarbide librea ezabatuz helburu bera lor badaiteke, gutxieneko esku-hartzearen printzipioari jarraikiz egokia da esku-hartze hori ezabatzea.

Ez da uste ordezkapenerako tresnak gauza bera dakarrenik. Nabarmendu denez, aurreproiektu gutxiak erakutsi dute sentikortasun handiagoa tokiko autonomiarekin, baina kontuan hartuta lehen aipatutako udalaz gaindiko interesa, kontrol batzuk aktibatzenko legitimazioa dagoela ulertzen da (zehatzak, legezkoak eta Konstituzio Auzitegiak bermatuak). Tokiko autonomia edukitzeak ez du esan nahi ez denik kontrolik egin behar udalaz gaindiko interes bat dagoenean, kasu honetan bezala (Autonomia Erkidegoak ere eskumenak ditu). Gai honekin lotuta, Tokiko Araubideko Oinarrien Legearen 60. artikulua parametroak leialtasunez bete behar direla nabarmendu da.

Tokiko Gobernuen Batzordeak bere txostenean lankidetzaren hitzarmenaren zortzi urteen mugari buruz (lau urteko indarraldia gehi lau urteko luzapena) adierazitako kezka aipatu du, azkenik, Arantza Gonzálezek. Azaldu duenez, Sailaren helburua honako hau da zortzi urteko epe hori ezartzean: hautatutako mekanismoa bidezkoa eta arrazoizkoa den ebaluatu ahal izatea. Horrek ez du esan nahi epe hori bukatzean lankidetzaren amaitu behar denik. Lankidetzaren balorazio positiboa egiten bada, harekin jarraitu ahal da, finantza-lankidetzako beste mekanismo baten bidez, aurreproiektuaren testuan aurreikusten den bezala. Era berean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 111. artikuluko egonkortasunaren eta iraunkortasunaren printzipioak bermatzen dira.

Arantza Gonzálezek esku-hartzearen ostean, Alfonso Gurpeguik hitz egiteko txanda ireki du, norbaitek esku hartu nahi badu.

Iñigo Gazteluk hitz egin du. Lehenik eta behin, eskerrak eman ditu Sailak aurreproiektuan aldaketak sartu dituelako txosten honen ondorioz. Era berean, bere ustez planteatutako gai guztiei erantzun positiboa eman ez zaiela adierazi du.

Alfonso Gurpeguik erantzun dionenez, ezin izan dira guztiak positiboki erantzun, gai batzuetan desadostasunak daudelako, baina beti hartu da helburu moduan udalerriek pisu handia izatea aurreproiektuan. Gaineratu duenez, legearen aurreproiektu honen arduraren ez da erakundeen artean koordinatzeko orduan dauden arazo guztiak konpontzea; bere eremura mugatu behar da.

Ángela Eguíak adierazi duenez, egoeraren jakitun dira, baina, udalerrien ordezkari direnez gero, udalerrien kezka guztiak helarazi behar dituzte.

Alfonso Gurpeguik berretsi duenez bakoitza bere eremuan dago eta, egindako balorazioaren arabera, aurreproiektu honekin EAEko enplegu sistemak kapilaritatea eta hurbiltasuna irabazten ditu toki-erakundeen partaidetzarekin. Hala, maila instituzional guztiak norabide berean joateko tresnak antolatzen dira.

Alfonso Gurpeguik amaitutzat eman du bilera. Akta Eudeli bidaliko zaiola azaldu die bertaraturakoei. Jon Velascok azaldu du, 10.000 biztanletik gorako eta beherako udalerrien



banaketa dela eta, egokia litzatekeela sailkapen hori komenigarri bihurtzen duten argudioak memorian jasotzea.

10:15ean amaitutzat eman da bilkura.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 21a.

O. E.

ALFONSO GURPEGUI RUIZ Enplegu eta Gizarteratzeko sailburuordea	INIGO GAZTELU BILBAO Larrabetzuko alkatea
ARANTZA GONZÁLEZ LÓPEZ Lan eta Enplegu Saileko aholkularia	ÁNGELA EGUÍA LIÑERO Gordexolako alkatea
FRANCISCO PEDRAZA MORENO Enplegu eta Gizarteratzeko zuzendaria	YOLANDA DíEZ SAIZ Bilboko Udaleko zinegotzia.
	JON VELASCO ECHEVARRÍA Letradua